

«LAUAXETA» OMENDUA

Txalogarri dogu beti, itzez eta egitez aundi izan diran gizasemeak, edota oindiño bizi diranak, omendu ta gorestea. Olan aolkatzen gaitu Liburu Santuak. Eta olako asko ditugu Euskalerrian bai letretan eta bai beste ainbat arlotan. Oneitatik, baiña, egia esateko, batzuk goretsiak -geiegi bear bada- ta beste batzuk albora itxiak, zuzentasunaren aurkako pekatu larritz.

Emen Lauaxetaz gabiltzan ezkeru, euskal olerkari bikain au be, azken urteotara arte bazter itxirik, erdi-aiztuta euki dogula esan geinke. Gaur-egun, osteru, aren lanak prosaz ta bertsoz naikoa irakurriak eta abestuak dira. Omenaldiak be gero ta ugariago artzen ditu.

Nainoiz dozu kaxkar norbere buruari intzentsuka ekitea, artobero usaiña zabalduz. Ez neunke nik olakorik egin nai; diñodan onetan nik, alan be, izan dot zati ederra. Eta puntuak i-gaifietan jarriz, gaur batez be, balio baliok ixil-azo ta exkaxak geiegi nabari-azten agiri-agirian gabiltzen giza-aro onetan, ez datorkigu gauzak diran lez neurtu, pisatu ta zuzenari dagokionez erakustea.

Nik Laukiz-ko olerkariari buruz «Milla euskal Olerki eder» (1954) argitaratu emotean, gorapen biziak idatzi nebazan arren, askok uste izan eben itxurea zanez, gorapen areik asto-arrantza edo zirala, eta euskal idazle batek be ez eban uste izan jaramon egiterik be merezi ebanik. Etzan aren olerkirik abesten, etzan aren koplarik antolajietan agertzen.

Geroago, 1974-an, Lauaxeta-ren olerkiakaz -«Bide Barrijak», «Arrats-beran» eta beste lantxo batzuekaz- «Olerkiak. Lauaxeta» tituluz azaldu neban liburu txiki oso eskukoia, egun batetik bestera agortu zana, ondoren, Olerki-Eguna zala-ta, omenaldi gogoangarria egiñaz. Euskalerriko idazlegoa orduantxe konturatu zan pizkat Bizkaian ba-zala punterengo olerkari ikastea,

aipatzea ta abestea merezi ebana.

Antton Valverde izan zan bere eresgailluz aurrenik Lauaxetaren olerkiak, txairo ta sentikor, otsegiten asi zana. Aipamen au, merezi daualako, ondo datorkiola uste dot; orregaitik bego emen bere ohoretan. Gero euskal olerki antologiak be ba ekarrezen aren poesi onetariko banaka batzuk. Bakotxak zelako ao-goxoa alako lanak aukeratuz sozial kutsukoak aukeratzen saiatu ziran batez be, Lauaxeta a be modan egoan joera orren tarteko egin nairik. Eta gaur, oraintsu berton, 1987-an, «Antología Poética Vasca», euskeraz ta erderaz Madrid'en argitara emondakoan, azken orduko euskal poeta eta erdel poeten lan euskeratuz apaindu 385 orrialdeko liburu gizenan, 76 «poeten» lanen artean Urkiaga-ren «Langille eraildu ati» irakurten dogu. Migel Anjel aundiak inoanez, «lenengotik gauza egiñera oituten dana, aurrera ezin eginda ibilliko».

Lauaxeta omendua ta goratua

Bizi zala be izan zituan omen-egunak bizkaitar olerkari bipillak, asko irakurriak izan bait ziran *Euzkadi*-n agertzen ebazan «Azalpenak» eta olerkiak, labur eta ulert-errezak, euskeraz eta erderazkoak, 1931-an eta 1935-an eskiñi euskuzan liburu biakaz batera.

Berrogei urte geroago, Olerki Egunez jai bikaiña opatu geuntson Larrea-n, bere anai-arreba, senitarteko, ezagun, olerkari ta goresle aldra ez txikia berton giñala. Emen alkar agurtu ta besarkatu gendun, olerkari gurenari berca emon nairik, Euskalerriko poetarik punterengoenak eleizan, akademi-ekintzan eta bazkaritan bakotxak bere biotz-garra egitez, kantuz eta itz-jarioz adierazorik.

Egun orretan zabaltzeko asmoz bereziki -esan dot- atera neban nik «Olerkiak» liburua, esandako liburu bietan datozen poesiakaz eta Jaungoiko-Zale, J.B. Deya, Euzkadi, Euzkerea, Yakintza-tik jasotakoakaz eta Gasteizko espetxean atxillo egoala egindako erderaz bi ta euskerazko bigaz ornidua. Berton datoz orrez gaiñera, itz lauz, J. Zaitegi ta Martin Itziar-en lanak, eta Luis Arostegi-ren «Lauaxetaren poesi-gunetarantz» idatzi sakona.

Urte batzuk geroago atara neban nik «Bide Barriak» (1980) bir-argitalpena, 143 orrialdekoa. Eta 1985-an, «Olerki Guztiak». Iru sailletan: I. «Bide Barriak» eta «Arrats-beran», euskeraz ta erderaz Lauaxetak berak argitaratu ebazan legez II. Luburuotan sartu bakoak. III. Geigarriak: itzulpenak, eritxiak eta gorespenak. Guztiz, 523 orrialde. «Bide Barriak» eta «Arrats-beran» datozen lanak egitura, gai, neurri, rima ta adizkeraz, errezago ulertze-ko azaldurik datoz. Zeatzasunok guztiz mesedegarri dira Lauaxetaren poetikaz jabetzeko.

Bere jaioterri Laukiz-ek be egin eutson urte batzuk dirala, besteak beste, onako omenaldi biozkorra, olerkisariketaz eta erritar jai txanbelinez bixitua.

Lumaz omendua

Lumazko gorespena, paperean itsatsirik gelditzen dana, ez da inolaz be ezesgarria, or geratzen da betiko ez bada be, luzaroen luzarorako. Lauaxeta-ren izena, beronen olerkiak eta olerkera dirala-ta, naiko aizatuak izan dirala esatea ezta gauza barri bat adieraztea. Atera izan diran antologietan parrastaz agiri jakuzan olerki autak. Nik adibidez gorago aitaturiko tokietan ez-ezik, «Las cien mejores poesías de amor de la literatura vasca» (Bilbo, 1975, euskeraz ta erderaz, 215 orrialde) deritxonean, aren iru olerki - «Zelayetakua», «Maitale kutuna» ta «Begien omenez» -sartu nebazan. «Zer»-en eta beste aldizkari batzuetan aztertu izan dot laukiztarraren poesi lana.

Aren «Bide Barriak» argitara emon zanean, luma askok goratu eben egillea. Orixe-k, Lizardi-k eta Abando-k «Euzkadi»-n, Aitzol-ek «El Día»-n, Mourlane Mitxelena-k «El Sol»-en eta Aita Estefania-k *Razón y Fe* aldizkarian, luze ta sakon. Luis Villasantek, M. Zarate, Etxenagusia, Enrike Zabala, Joan Amenabar, Auñamendi, Anaitasuna, Argia, Pamiela ta abar euren aldizkarietan; L. Akesolo, S. Muniategi, S. Onaindia ta besteak «Olerki», «Karmel» eta «Zer»-en idatzitako artikuluetan... Jon Kortazar-ek, azkenez, ugari ta arretaz ikasi ta aztertu dau Lauaxeta «Azalpenak» (Bilbo, 1982), «Lauaxeta Olerkiak» (Donostia, 1985), «Lauaxetaren olerkigintzaren ardatzak» (Jakin, 1985), eta «Teoría y práctica poética de Lauaxeta» (Bilbo, 1986).

Edu orretan beste batzuk, liburuetan eta aldizkarietan.

Azken aldiko omenaldiak

1) *Ertzaintzak*.- 1987-VI-18-an, Korpuzti egunez Ertzaintzak Mungian egin eutsona bikain-bikaina izan zan benetan. Aste bi aurretik, arratsalde eder batez, X. Aranburu, Ertzaintzan jai eta antzeko ekintzen ardura dauana etorri jatan Gasteiztik. Geure baratzekeo zugazpe gozoan euki genduan alkarizketa, ainbat gauzak aztertuz. Ak ekarrena auxe zan: «Ertzaina» itza Lauaxetak asmatua zala eta Ertzaintzak, a fusilatu ebenetik 50-garren urtea ospatuz omenaldi eder bat egin bear jakola.

Andik iru egunera egitarau au bialdu eustan Gasteiz-tik, onan inoana: «Estepan Urkiaga «Lauaxeta», Euskal Herriko olerkarien artetik gorenetakoa dugu. Bera izan zan «Ertzaina» hitza asmatu zuen idazlea. Nahiz eta bere hilketaren 50 urtea hil honen 25ean bete, Eusko Jaurilaritzaren Hertzaingo

Sailak astebate aurreratu du, jai eguna izanez gero herritarrek errezago parte har dezaten.

Omenaldi oni asiera emoteko, 12,00-etan, Torrebillela Kultura Etxean, literatura saioa. Onela: 1) Mungiko alkate den Juan Berroategieta jaunaren agurra; 2) Jon Kortazar jauna, «Lauaxeta Olerkariak» mintzatuko da, Euskal Herriko Unibersitateko irakasle eta Lauaxetaz tesi doktoralaren egilea; 3) Aita Santi Onaindia, idazle, euskal literaturaren kondairaren egilea, Lauaxetaz arituko da; 4) Eusko Jaurlaritzaren Hertzaingo Sailburua den Luis Retolaza jaunak literatura saio honi amaiera emango dio.

Eta abar.

Goizeko amabi-amabietan asi zan omenaldia. Txistularien soñuz Kultur aretoa giñan guztiok. Jenterza ederra, errikoak eta erritik kanpokoak. Goian, Luis Mari Retolaza erdian eta onen eskuman Roman Sodupe ta Aita Onaindia, ezkerrean erriko alkate jauna ta Jon Kortazar. Alkate jaunaren itz laburren ostean, Kortazar-ek bere zer-esana Lauaxetaren olerkiari buruz, labur eta mamintsu. Nire txanda ondoren, gure olerkariaren bizitzako gauzarik eder-garrantzitsuenak gogora ekarriz.

Ondoren, Ertzainaren eresbatzaren musika soñutan, kalerik kale ibillaldia, erri-bazterrak poztu ta bizkor-azoz. 13,00-etan, Lauaxeta mutikotan bizi izan eta gaur ederto barriztaturik daukagun etxe-ormen ipiñita egoan gomutagarria, estalduta aurkitzen zana, Retolaza jaunak estalgetu ta agertzea. Marmol zuriak au diño: «Ertzaina» hitza asmatu zuan Estepan Urkiaga «Lauaxeta» olerkari gorenari - Eusko Jaurlaritzaren Hertzaingo Sailak. 1987-VI-25».

Dantzari gazte bizkor batek bertantxe aureskua dantzatu eban bertoko txistulariak lagunduta. Azkenez, Ertzaintzaren eresbatzak euskal ereserki «Gora ta gora Euzkadi» jo eta guztion artean abestu gendun, kale, etxebazter eta inguruak soñu ozenez dardaraturik.

Bertako Foru enparantzan gero, 13,30-etan, Ertzaintzaren eresbatzak musika ekinaldia, Jon Lobarona-ren zuzendaripean, Mikel G. Bastida, F. von Suppé, Rodrigo A. de Santiago, Tschaiokoky ta Jesus Guridi-ren erespusketak jo zituen. Bazkaria ondoren «Zarra» jatetxean, eta 10,00-etan, Torrebillela Kultur aretoan «Lauaxeta» filmea eman zan. Jai eder, betea.

2) Laukiniz-en

Emen jaioa dogu Urkiaga'tar Estepan, 1905'ko dagonillaren 3'an. Len-dik be izan zituen emen -esan dogu- omenaldiak, baiña fusilatu ebenetik 50-garren urtea aundikiro jaitu gurarik, bertoko agintariak -Izaskun Atutxa

aurrelari dala- eta erriak kultur-jardun bikaina eskini eutsen, besteak beste, mai-inguru gogoangarri ta jakintsua gertatuz Erriko ikastolako areto txukuan ospatu zan egintza au. Jentex eta izlariz bikain, arratsaldeko zortzi t'erdietan lez.

Ni Gernikan nintzan arratsalde aretan, neure azken liburu «Gernika»-ren aurkezpena zala-ta. Baiña mai-inguru antolatzaile bizkorak ekin eta ekin maitekor eskatu eustanez, Gernikakoa beingoan amaitu ta abiadan ona eldu nintzan. Lenengo Lino Akesolo ta Luis Arostegi ziran izlari ta ni ona orduko osotua euken euren txanda. Jon Kortazar bere kritxiak ariltzen aurkitu neban; gero X. Aranbarri ta azkenez ni.

Ertz askotatik ikutu jakon Lauaxetaren poesiari, egoki zanez. Onako baten Aranbarrik itaun: «Zergaitik maite ete dabe gaurko gazteak Lauaxetaren olerkia?» Eritxi ezbardinak. Itaunlariaren aburuz, baiña, gaurko gaztea «plazer» zale da eta laukizarrak maitasuna kantatzen dau nasai-nasai, eta orrek liluratzen ditu bear bada.

Egia, bear bada, esan bearko. Lauaxetak maitasuna sarri aitatu arren, ez dot uste lokatz-artekoa zanik ak kantatu ebana, irudikizun polit ausart gano-razkoz jantzia olerkari askok beste literaturetan be egin ebana. «Plazer» itz orrek, nai dozun zentzuna ezarri, adierazo bide dauan antzeko sekxu utsezkorik nekez aurkituko dozu arengan. Naiz eta gai ezerez sorillak erabilli, arek arrano gisa egaz egian beti. Gaur lez orduan be sekxua sekxu zan, baiña Urkiaga etzan sekula be maitasun aragikoiri jatsi irakur «maitale kutuna», edo beste edozein kopl ta ezetz aurkitu bee-maillan ego-narras dabillenik.

Mugaz andiko bertsolari ta olerkariak eder izan jake itz au, baiña lurtar mamiñez, aragi adierazpenez kutsutua dalako. «Plazer» itza areintzat atsegiña da, ez aragi-dardaraz erabillia, osoro beintzat, beste sentikortasun bitxi ta barrukoago batez nabaitzen dana baiño: gozotasuna, baiña espirituarena aragiaren baiño geiago. Ulertzen? «Plazer ba duzu», atsegin ba jatzu, esan daroa eziket a oneko batek. Latifiek artutako itza da: *placeo -cui-placere*. Gaurko erriargotean, oster, «plazer» itzari gazteen artean bereziki, beste esangura bat, aragi atsegiña jarri nai dautsue. Eta Lauaxetak, edozeinek izate-barne daroan irritsaren akulu-kana aldean erabillirik be, indartsu zan zimiko orren sastadai iruzur egiteko.

Beukic, beraz, oraingo gazteak be arek laingo espiritu bizi ta kementa, bizi beitez a baizan aratz eta indartsu, eta ager beitez euren idazlanetan a baizen garbi ta guren. Maitasuna da Lauaxetaren erregai, eta maitasunaren gorabera, kakoak eta kalamatrikak, beti alan be eder-mailla goitian.

Bada beste zer bat be mai-inguru aretatik -kritikuak edo-atera ebena ta guk ikusi eza. Ur-tira edo «korronta» bi agertu ei ziran an; neska gazetari bat da ori adierazo dauskuna. Ots, zaarren eta gazteen arteko korrontea, talde biok odol batekoak eta euskal izkuntzaren alde leiatsu lan dagienak ez ba lira lez. Baiña betiko lelo gogaikarri ta asmo gaiztokoa. Gazetari arek ez dakit nik nundik atera eban ori. An izan giñean batzuk geroago ortaz jardunik arrigarrri iruditut jaken ori esana an ez bait zan olakorik izan, batasun elduaz gauzak esan eta burutu baiño. Gazetariak alan be -zergaitik ez dakigula- erbi ordez untxi-kumak saltzen.

Dana dala kultur batzar atsegiña, bere erriak Lauaxetari eskiñi eutsona. Zorionak erriko agintari, diru laguntza emon ebenai ta erri osoari. Apari eder batez amaitu zan jaia. Gaberdian «Lauaxeta» izeneko filmea probalekuan.

3) Euskerazaintza - Euskerazaleak

Otz danak beroa opa, eta alkarte biok be, goienik bizkaitarrez orniduak izanez, omenaldi txeratsua eskiñi nai izan eutsoen Laukiz-ko olerkari samurrrari. Eta orrelaxe ospatu zan il ebenetik 50-garren urtean, 1987-ko bagillaren 27-an; Mungian, Lauaxetak bere leengo eskolak artu zituan errian ospatu be.

Egun orretan bete bear genduna egitarau zeatz-meatztorren ondo azalduta. 11-etan mezea, Kepa Deunaren eleiz nasai dotorean. Jentex naikoa betea. Amabost bat meza-emoille altaran Bizente Lariegi, abade ta praillez inguratua erdiko zala; itzaldia be, oso gartsu, beronek egiñik. Koruan Mungia-ko abesbatza, kantari talde bikaiña. Ezta ez daigun itxi albora eleizan, kultur etxean eta bazkaritan, ain gogotsu agertu ziran txistulariak.

Meza ostean Billela areto nagusian, jakintza ekiñaldia. Oni asiera emoteko neskatok batek Lauaxetaren olerki atin bat, «Zelayatakua» *Arrats-beran* bigarren datorrena, gozo ta samur irakurri euskun. Itzaldiak gero. Lino Akeso-lo Aita karmeldarrak, Euskerazaintzaren buru danaren sarrera itzen ostean, Zubiri'tar Iñakik «Lauaxeta Abertzale», Aurre-Aprai'ek «Lauaxeta gudari ta atxillotua, Zubikarai jaunak «Lauaxeta Izparlari ta izlari» ta Luis Arostegik, modernua ta klasikua, bakotxak bere sasoiko giroari guna ateratea bait da klasiku ta modernu izatea, eta orrela egin ei Urkiagak orduko ederzaletasunaren ederra ondorengoai ixuriz.

Ordu 2-etan lagun arteko bazkaria bertako «Sollube» jatetxean, umore onez gozaturik; txistulariak eta bertso-kantak be ez eben uts egin. Eguraldi

ederrez jai bikaina Mungiko erriak eta asieran aitaturiko alkarte euskerazale biak ango seme jatorrari eskiñitakoa.

Zail da literatura ta politika batera egitea. Lauaxetari, oster, olako momentu kritiku baten bizi bearra gertatu jakon: aspaldiko errege agintaritzaz jausi ta Errepublikak apurka eskiñi eban askatasun urria. Urteetan latz zigorturiko euskalerrria gertu egoan bere eskubide, lege, oitura ta izkuntzaren aldeko lanari ekiteko eta, egin-egintzan be, beste ambaten artean sail orretan jardun eban Lauaxetak, izkuntzan eta politikan; izkuntzan, bertsoz eta iz lauz, or bere olertizko liburu biak, eta politikan or aren itzaldiak eta «Euzkadi»-n emon euskuzan «Azalpenak».

Berezko lez umetatik ekarren literaturarako deia, gero ikasketa bitartean Durango, Loiola ta Oña-n batez be, irakurri ta idatziz geitu, sakonagotu ta umotuz joan zana. Gazte itzali jakun, edo obeto, espirituzko erreñura bialdu euskuen. Lora landara ederra, Aita Errenderi, Zubigar, Lizardi ta Loramendi lez, bizitz goizeko eguzki dizditsuan alan bearrez alde egiñak.

Oncik guztiok, euskal literaturarentzat galpen ikaragarria izanik be, eredu doguz guk, eurok erakutsi bidetik jarraituz geure lurra, geure erria jaso, obetu ta indartzen alegiñak egin daiguzan. Arlo oni ekin nai ba dauzagu, badaukagu nun begiak jarri: ispillu bikain da Lauaxeta.

Aita Onaindia